



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-20.01.05

2020ko urtarrilaren 29ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2020ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ezohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta alde zuzenetik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.

Segidan Lehendakariak hasiera eman dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-20.01.06

...//...

LEHENENGO PUNTUA:

Ormaiztegui Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoaren artean udal erroldaren datuak egiaztatzeko hitzarmena.

Idazkariak hitza hartu du eta azaldu du aurretik sinatuta zegoen Hitzarmena dela, bere indarraldia iraungi egin dela eta Lurralde Agintaritzak berritzea proposatu duela.

Alkateak gaineratu du interes berezia daukala herritarrentzat, Udalak Hitzarmena sinatuta izanez gero, ez baitute errolda agiririk eraman behar MUGI edo beste era bateko bidaiari txartela atera edo berri nahi dutenean. Hitzarmenaren bitartez, Udalak Agintaritzari baimena ematen dio Udal Biztanleen Erroldan kontsulta egiteko, eskari bat jasotzean, eta horrela prozedura erraztu egiten dela adierazi du.

Eztabaida ireki da baina udalkideek ez dute oharrik edo bestelako ekarpenik egin. Ondorioz, bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu da alkatea Hitzarmena sinatzeko ahalbidetzea.

BIGARREN PUNTUA:

Eraikinen auditoretza eta ziurtapen energetikoak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio zentralera atxikitzeko proposamena.

Alkateak adierazi du Udala behartuta dagoela, legez, bereak diren eraikinetan auditoretza eta/edo ziurtapen energetikoa egitera eta komenigarri deritzola, beste zerbitzu edo hornikuntza gai batzuetan bezala, Foru Kontratazio Zentralaren bitartez tramitatzea.

Idazkariak azaldu du eraginkortasun energetikoa, hain gai espezifiko eta tekniko izanik, kontratazioarako baldintzak eta ezaugarriak zehaztea oso zaila dela. Horrela iritzi diela Gipuzkoako beste Udal askok ere eta, zailtasun hori ikusita, Foru Kontratazio Zentralari eskatu zaiola bere gain hartzeko kontratu honen Pleguen idazketa eta tramitazio osoa.

Alkateak erantsi du kasu honetan gainera Udalak ez duela konpromisorik hartuko benetako kostua jakin arte eta, edozein kasutan, Zentralaren bitartez lortzen diren prezioak, erakunde talde osorako direnez, hobeak izaten direla banaka kontratatuta baino.

Eztabaidarako gunea zabaldu da baina ez da galderarik edo kontrako iritzirik jaso. Ondoren bozketa egin da eta ahobatez onartu da Foru Kontratazio Zentralaren espedienteari atxikitzeko proposamena.

...//...

E-20/01-02



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-20.01.07

...//...

HIRUGARREN PUNTUA:

Udalaguntza 2019 deialdira aurkeztuko diren San Andres Herri Eskolan 2019an egindako eta 2020an egingo diren obren onarpena.

Idazkariak udalkideen esku jarri ditu Herriko Eskoletan 2019an egin diren lanen espedientea eta 2020an egin nahi diren lanen egitasmoarena.

Alkate jaunak gogorarazi du Hirigintza Batzordean landu zen gaia dela eta espedienteetan jaso direla lanei dagozkien txostenak, bai alde teknikotik bai lege eta diru kontuei dagokienean ere. Hortaz, eta kontuan izanik gainera subentzioa jasotzeko aukera izan dezakeela Udalak lanen finantzazioan laguntzeko, 2019ko eta 2020ko lan horiek onartzeko proposatzen dio Udal Korporazioari.

Eztabaida ireki da eta ekarpenak egiteko aukera eman zaie zinegotziei baina zinegotzi jaun-andreek ez dute esateko ezer izan.

Ondorioz, bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu dira San Andres Eskolan 2019an egin ziren lanak eta 2020an egin nahi diren lanak egitea.

LAUGARREN PUNTUA:

Erreguak eta galderak

Aitor Okariz zinegotzi jaunak adierazi du Eskolako beheko solairuan dauden komunetan eta, bereziki mutilenean, oso usain txarra izaten dela eta ez duela ematen garbitasun faltarena denik.

Garazi Hach Embarek zinegotzi andreak gaineratu du garbiketa oso ondo egiten dela eta kiratsak ez duela zerikusirik berez horrekin, beheko solairuan bakarrik gertatzen baita. Horrez gain, mutilen komunaren erdian putzu bat egiten dela azaldu du.

Alkate jaunak erantzun die instalazio osoa errebisatu eta hobetu zela duela gutxi, eta sifoiak jarri zirela puntu guztietan, lehen ez baitzegoen.

Aitor Okariz eta Garazi Hach Embarek zinegotzi jaun-andreek erantzun dute nonbait ez dela horrekin nahikoa izan, estolda usainak bere horretan baitirau.

Alkateak iradoki du beharbada udarako utzi daitekeela arazoa teknikoki aztertzea eta konpontzea, eskola hutsik egongo dela aprobetxatuta. Zinegotziak ados agertu dira.

Ez da beste erregurik ez galderarik izan.

...//...

E-20/01-03



Ormaiztegui Udal

Udal1-batzarre
E-20.01.08

...//...

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:30 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2020ko urtarrilaren 31n.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begonia Antxustegi Bengoetxea

...//...
E-20/01-04